

EUSKARAZ lan egiteko eta bizitzeko esbubidea BERMATU!

*Euskararik gabe,
kalitatezko zerbitzu publikorik ez*

Azken urteetan Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzeko zein lantokietan euskaraz lan egin ahal izateko eskubideen kontrako oldarraldi politiko eta judiziala bizi dugu. Eraso horien aurrean LAB beste sindikatu eta euskaigintzako eragileekin mobilizatzen aritu da, eta erasoei erantzuten jarraituko du. Era berean, baina, **euskararentzat berme juridikoak lortzeko ofentsibara pasatzeko garaia dela uste dugu**, eta ELAekin batera jauzi hori ematea erabaki dugu.

Eremu bakoitzeko egoera eta interpelazioak kontuan edukita, ikasturte osoan Hego Euskal Herrian mobilizazioak egingo ditugu dinamikaren barruan, EAErako eta Nafarroarako deialdi bereiztuekin. Zerbitzu publiko guztietako langileak aktibatuko ditugu, eta borroka lantoki guztietara eramango dugu, azpikontratutako eremuetara barne: gobernuak, udalak, aldundiak, enpresa eta gainerako administrazio publikoak...

Nafarroako mobilizazioak:

- Abenduak 16: Elkarretaratzea Iruñean, Nafarroako Parlamentuaren aurrean
- Urtarrila: Merezimenduen dekretua argitaratzean, manifestazioa Iruñean
- Martxoa: Mobilizazioak Hego Euskal Herriko lantokietan
- Maiatza: Eskualde mailako mobilizazioak

LABen aldarrikapenak:

- Euskararen kontrako epaiak salatzea.
- Administrazio publikoan euskararen eta gaztelaniaren ezagutzaren beharra parekatzea.
- Hego Euskal Herriko administrazioak erabat euskalduntzeko plangintzak adostea, baliabideak eta epeak

adostuz, lanpostuak behar duen ezagutza nahikoa bermatuz eta euskaraz lan egin ahal izateko plangintzak eginez.

- Erabiltzaileek euskara zerbitzu hizkuntza gisa izateko duten eskubidea bermatzea.
- Pribatizatutako-itundutako eremuetan, langileak euskaraz lan egiteko eskubidea eta erabiltzaileek euskaraz artatuak izateko duten eskubidea bermatu daitezen, zerbitzua ematen duten enpresei euskara planak egiteko derrigortasuna ezartzea plegu bidez. Hau da, hizkuntza klausulen bidez.
- Euskararen lege berri baten beharra aldarrikatzea, lurralde osoan ofiziala izan dadin behingoz.
- Lege berria egon bitartean, erabiltzaileentzat euskara zerbitzu-hizkuntza izateko eskubidea derrigorrez bermatzea euskara ofiziala den eremuetan. Bestetik, euskara ofiziala ez den eremuetan, euskararen ezagutza meritu gisa ezartzea.
- Diskriminazioarekin amaitzea. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina delakoaren 33. artikulua bertan behera uztea.
- Langile publikoen estatutu berriak euskaraz lan egiteko eskubidea eta euskara zerbitzu-hizkuntza izateko eskubidea bermatzea.
- Lanpostu berri guztiek hizkuntza eskakizuna izatera bidean, urtero portzentaje bat adostea, administrazioan euskara profila duten plaza kopurua handituz.

Langileak eta lan zentroak aktibatzeraz goaz. Aldaketa legalak egiteko garaia da. Administrazio publikoa euskalduntzearen aldeko lege bermeek mobilizazio soziala eta euskal langileon aktibazioa eskatzen dute, eta, horregatik, mobilizazioak areagotzeko garaia dela berresten du LABek, bestelako borroka moldeak baztertu gabe.